


ETXEBIZITZA BEHARREI ETA ESKAERARI BURUZKO INKESTA (EBEI) - 2017

EAEko 18 eta 44 urte arteko biztanleriaren % 12k lehen etxebizitza eskuratzeko beharra du

76.286 etxebizitza nagusik birgaitze-lanak behar dituzte, eta 75.970 familian etxebizitza aldatzeko beharra adierazi da. Bi kasu horiek EAEko etxebizitza nagusien % 8,6 dira

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako 2017ko Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari Buruzko Inkestaren arabera, EAEko 18 eta 44 urte arteko biztanleriaren % 12k (84.082 pertsonak) lehen etxebizitza eskuratzeko beharra du; aitzitik, adin-tarte horretako lagunen % 61,7 dagoeneko emantzipatu da (431.859 pertsona). Etxebizitza eskuratzeko premia duten 84.082 pertsona horiek emantzipatu ez direnen % 31,4 dira, eta beren gurasoen, tutoreen edo beste senide batzuen etxebizitzetan bizi dira.

1. taula. Etxebizitza eskuratzeko, aldatzeko eta birgaitzeko beharra, lurralde historikoaren arabera. 2017

(Balio absolutuak eta portzentaje bertikalak)

EAE-KO ETXEBIZITZA BEHARREI ETA ESKAERARI BURUZKO INKESTA		2017		2015. urtearekiko aldakuntza	
		Kop.	Familia guztien %a	GUZTIRA	%
EAE	Eskuratzea (1)	55.531	6,3	-8.758	-13,6
	Aldaketa	75.970	8,6	22.838	43,0
	Birgaikuntza	76.286	8,6	18.269	31,5
	Familiak	887.743	-	24.212	2,8
Araba	Eskuratzea (1)	8.383	6,2	21	0,3
	Aldaketa	12.140	9,0	2.834	30,5
	Birgaikuntza	9.790	7,2	3.106	46,5
	Familiak	135.524	-	3.635	2,8
Bizkaia	Eskuratzea (1)	30.543	6,6	-4.406	-12,6
	Aldaketa	40.987	8,9	14.945	57,4
	Birgaikuntza	43.590	9,4	15.977	57,9
	Familiak	463.074	-	12.581	2,8
Gipuzkoa	Eskuratzea (1)	16.605	5,7	-4.374	-20,8
	Aldaketa	22.843	7,9	5.060	28,5
	Birgaikuntza	22.906	7,9	-814	-3,4
	Familiak	289.144	-	7.996	2,8

(1) Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrerara edo errenta propioak dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsonak hartuko dira kontuan soilik.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta. 2017



Bestetik, era berean, inkesta horrek identifikatu du Euskadiko familien % 8,6k etxebizitza aldatzeko premia duela (75.970 familia); aitzitik, antzeko familia kopuru batek (76.286 familia, alegia, guztizkoaren % 8,6) adierazi du beren etxebizitzek 3.000 euro baino gehiagoko kostua duen birgaitze motaren bat behar dutela, bai eraikineko elementu komunetan, bai etxebizitzaren elementu propioetan.

18 eta 44 urte arteko 62.100 lagunek lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dute eta diru-sarrera eta errenta propioak dituzte; aitzitik, 21.982 lagunek, premia izan arren, ez dute diru-sarrera propiorik

2017an, diru-sarrera edo errenta propioak dituzten EAEko 18 eta 44 urte arteko 62.100 lagunek –alegia, adin-tarte horretako biztanleriaren % 10–, adierazi zuten etxebizitza bat eskuratzeko premia zutela. Etxebizitza eskuratzeko aurreikusitako modua aztertu ondoren, alegia, modu indibidualean edo bikotearekin erosiko den, EAE osoa kontuan hartuta, 2017an, 55.531 etxebizitza behar dira etxebizitza lehen aldiz eskuratzeko premia duten pertsonen erantzuteko. Zifra hori orain dela bi urte baino % 13,6 txikiagoa da.

Eskuratzeko premia ez balitz zehaztuko diru-sarrera propioak izatearen bitartez, zifra hori 76.406 familiakoa izango litzateke, alegia, 20.875 familia gehiago izango lirateke, egun diru-sarrerarik ez duten pertsonen beharrak ere kontuan hartuta. Kasu horretan, premia duten pertsonak, guztira, 18 eta 44 urte arteko biztanleriaren % 12 izango lirateke, alegia, 84.082 lagun, eta horietatik 21.982k ez zuten diru-sarrera propiorik elkarrizketa egin zuten unean.

2. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko premiaren kuantifikazioa, diru-sarrera edo errenta propio erabilgarrien eta lurralde historikoaren arabera. 2017

	Diru-sarrera edo errenta propioen bat dutenak			Diru-sarrerarik gabe	Beharra dutenen guztizkoa
	Nahikoa diru-sarrera	Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak	Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa		
EAE	18.438	37.093	55.531	20.875	76.406
Araba	2.390	5.993	8.383	3.245	11.628
Bizkaia	10.820	19.723	30.543	10.796	41.339
Gipuzkoa	5.228	11.377	16.605	6.835	23.440

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskareri buruzko Inkesta. 2017

2015etik 2017ra lehen etxebizitzaren eskariak beherakada izan du: % 20,8koa Gipuzkoan eta % 12,6koa Bizkaian; aitzitik, Araban gora egin du pixka bat (+ % 0,3)

Diru-sarrerak dituzten 18 eta 44 urte arteko 34.152 bizkaitarrek 30.543 etxebizitza eskatu zituzten 2017an –2015ean baino 4.406 gutxiago–; 18.964

2(5)




gipuzkoarrek 16.605 etxebizitza eskatu zituzten –4.374 gutxiago– eta lehen etxebizitza behar duten 8.986 arabarrek 8.383 etxebizitza eskatu zituzten 2017an, 2015ean baino 21 gehiago.

Lehen etxebizitza eskatzaileen % 42,9k alokairua aukeratzen dute

Lehen etxebizitza eskatzen duten 18 eta 44 urte arteko taldean, hirutik batek soilik du nahiago jabetza, alegia, % 36,1ek; aitzitik, % 42,9k alokairua du nahiago, eta gainerakoari, % 21,0ri, berdindio edukitza-erregimenak.

Eskatzaileen talde garrantzitsuena 25 eta 34 urte artekoa da –% 62,7 –; ondoren, 35 eta 44 urte artekoak dira, % 21,7arekin; eta gainerakoa, % 15,6, adin gutxien duen taldearekin lotzen da, alegia, 18 eta 24 urte artekoekin.

1 Grafikoa. Premiazko lehen etxebizitzaren ezaugarriak eta eskatzaileen profila (%). EAE 2017



(*) % 100era iristeko falta den gainerakoa talde honi dagokio: 'Ez daki-Ez du erantzun'.



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta


Etxebizitza aldatzeko beharra % 43,0 handitu da azkeneko bi urteetan

Etxebizitza aldatzeko beharra nabarmen handitu da, 75.970 familiari eragiten die, 2015ean baino 22.838 gehiagori, eta EAEko familien guztizkoaren % 8,6 da.

2017an etxebizitza aldatzeko beharra adierazten duten familien % 41,9k adierazten du ez duela aldatzeko behar objektiborik, baina epe laburrean/ertainean etxez aldatzea aztertzen ari dira. Gainerako % 58,1ek adierazten du etxebizitzaz aldatzeko behar zuzena dutela.

Lurraldeka, bi portaera bereizten dira: alde batetik, Arabakoa eta Gipuzkoakoa; premia duten familien erdia baino pixka bat gutxiago, alegia, familien % 46 inguru, etxebizitza aldatzea pentsatzen ari da, nahiz eta hori egiteko premia objektiborik ez izan (Arabakoa % 46,1 dira eta Gipuzkoan % 45,1). Bizkaian, aldiz, etxebizitza aldatzeko premia objektiboa duten familiak dira nagusi. Premiadun familia horiek Bizkaian hautemandako premiadun familien % 61,4 dira.

2 Grafikoa. Aldatzeko beharra duten familien ehunekoa, beharraren arabera ekoiz. 2015



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta




Etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra % 31,5 handitu da azkeneko bi urteetan

Bestetik, etxebizitzan berrikuntza egiteko beharrak 76.286 etxe-titularrei eragiten die, 2015ean (58.017 familia) baino % 31,5 gehiagori. 2017an erregistratutako zifra EAEko familien guztizkoaren % 8,6 da.

Etxebizitzek behar duten birgaitze-lanaren tipologiari dagokionez, bitik bat (% 49,9) etxebizitza barneko hobekuntza-beharrei dagokio. % 18,0k birgaitzea etxebizitza barruan eta eraikineko eremu komunetan egiteko beharra dute. Gainerako % 32,1a eraikineko eremu komunei soilik dagozkien birgaitze-ekintzei dagokie.

3 Grafikoa. Birgaitzeko beharra duten etxebizitza duten familiak, birgaitze motaren arabera. EAE 2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta

Informazio gehiago:

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia
Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta
Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxa: +34-945-01 98 56
WEBGUNA: www.euskadi.eus/estadisticas-vivienda
Helbide elektronikoa: estadistica-vivienda@euskadi.eus*